

0 ZK.KO ORDENANTZA FISKALA - ZERGAK KUDEATZEKO, BILTZEKO ETA IKUSKATZEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKAL NAGUSIA

I. TITULUA: XEDAPEN ODOKORRAK

KAPITULUA I. PRINTZIPIO OROKORRAK

LEHENENGO ATALA. ORDENANTZAREN IZAERA

1. ARTIKULUA

Honako Ordenantza hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauan ezarritakoari jarraituz egina da eta Erandioko zergen araubidea osatzen duten tributu guztiak kudeatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko printzipio eta arau orokorrak ezartzen ditu. Ordenantza honek ez du kentzen Bizkaiko Lurralde historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua Orokorrean (aurrerantzean ZBFAO) eta horrekin bat datozen bestelako araudietan ezarritakoa betebeharra.

2. ATALA. APLIKAZIO EREMUA

2. ARTIKULUA

Ordenantza hau Erandioko udal mugarte osoan aplikatuko da onartu den egunetik hasi eta harik eta aldatu edo indargabetu arte.

3. ATALA. ZERGEI BURUZKO ARAUEN PRINTZIPIOAK ETA INTERPRETAZIOA

3. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzko Foru-Arauaren babesean ezartzen diren tributuek, edonola ere, ondoko printzipio hauek hartuko dituzte aintzat:

- a) Ez dira zergapetuko udal lurraldetik kanpo kokatutako ondasunak, garatutako jarduerak, sortutako etekinak eta eginiko gastuak.
- b) Ez dira zergapetuko udal lurraldetik kanpo burututako negozio, egintza nahiz egitateak, ezta udal lurraldean sortu ez diren edo bertan gauzatzekoak ez diren ondasun, eskubide eta betebeharren erabilera edo eskualdatzea.
- c) Errespetatu eta bermatu egingo da zirkulatzeko eta kokatzeko pertsonak duten askatasuna; bermatu egingo da ondasunak, kapitalak eta zerbitzuak aske zirkulatzeko, diskriminazio egoerarik sorrarazi gabe, enpresen arteko lehiari kalterik egin gabe eta baliabideak izendatzean distortsiorik eragin gabe.

4. ARTIKULUA



1.- Zergei buruzko arauak Kode Zibileko 3. artikuluko 1. atalean xedatutakoaren arabera interpretatuko dira.

2.- Zerga-arautegian zehazten ez diren heinean, bertako arauetan erabiltzen diren terminoak euren adiera juridikoan, teknikoan edo ohikoan (kasuan kasukoan) ulertu behar dira.

3.-Zerga-betebeharrak egindako egitatearen, egintzaren edo negozioaren izaera juridikoaren arabera eskatuko dira, interesdunek eman dioten itxura edo izena kontuan hartu gabe. Horren baliozkotasuna uki dezaketen akatsak alde batera utziko dira.

4.- Analogiaz jokatzeari debekatuta dago. Ez da onartuko analogia zerga-egitatearen, zerga-salbuespenaren eta gainerako zerga-onuren eta -pizgarrien eremua muga zehatzetatik haratago hedatzeko.

5. ARTIKULUA

1. Artikulu honetan arautzen den itzurpenaren aurkako klausula inguruabar jakin batzuk betetzen dituzten egintza edo negozioen bidez zerga-egitate osoa edo beraren zati bat ekiditen denean edo zerga-oinarria nahiz zerga-zorra gutxitzen denean aplikatu ahal izango da. Hona hemen inguruabar horiek:

- a) Banaka nahiz taldeka kontuan hartuta, izan den emaitza lortzeko artifizio handikoak edo desegokiak izatea.
- b) Horien erabilerak zerga-aurrezkia eta ohiko edo norberaren egintzek zein negozioek sortutako ondoreak ez beste ondorio juridiko edo ekonomiko garrantzitsurik ez izatea.

2. Zerga Administrazioak aurreko paragrafoan arautzen den kasua gertatu dela adierazteko, ZFAOren 163. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar da.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren likidazioetan zergak eskatzeko, ohiko edo norberaren egintza zein negozioei dagokien araua aplikatuko da edo lortutako zerga-onurak ezabatuko dira, eta berandutza-interesak likidatuko dira. Ez da zehapenik ezarriko.

6. ARTIKULUA

1. Simulazioa gertatzen den egintzetan edo negozioetan, alderdiek benetan egindako zerga-egitatea zergapetuko da.

2. Zerga Administrazioak likidazio-egintzan adieraziko du simulazioa gertatu dela; nolahi ere, kalifikazio horrek zergen arloan baizik ez ditu izango ondoreak.

3. Simulazioaren ondorioz egin beharreko erregularizazioan berandutza-interesak eskatuko dira, eta bidezkoa denean zehapena ere bai.

4. ATALA - ZERGAPEKO EGITATEA

7. ARTIKULUA

1. Zergapeko egitatea Zergei buruzko Foru Arauak eta Ordenantza Fiskalak zerga bakoitza eratzeko finkatzen duen oinarria da; hori burutzeak zerga-betebehar nagusia sortzen du.



2. Zergapeko egitatea zerga-arauen bidez osa daiteke, hain zuzen ere zergapean ez dauden kasuak azalduta.

II. KAPITULUA. ZERGAPEKOAK

8. ARTIKULUA

1. Zergapekoak dira zerga-arautegiaren arabera zerga-betebeharrak (materialak nahiz formalak) dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak eta erakundeak.

2. Besteak beste, hauexek dira zergapekoak:

- a) Subjektu pasiboak.
- b) Konturako ordainketak egin behar dituztenak.
- c) Zergen ondorioz norbanakoen artean sortzen diren betebeharrak bete behar dituztenak.
- d) Oinordekoak.
- e) Zergen arloko salbuespenen, itzulketen edo hobarien onuradunak, subjektu pasiboak ez badira.

3. Zergapekoak izango dira (hala ezartzen den foru arauetan) jaraunspen jasogabeak, ondasun erkidegoak eta, nortasun juridikorik ez dutela, ekonomi batasuna edo ondare bereizia osatzen duten eta zergapetu ahal diren gainerako erakundeak.

4. Halaber, ordenantza fiskal honetako 12. artikuluan aipatzen diren erantzuleak ere zergapekoak izango dira.

5. Betebehar batean zergapeko bat baino gehiago badago, Zerga Administrazioari prestazio guztiak solidario gisa ordaindu beharko dizkiote, foru arau batek berariaz besterik xedatu ezean.

Foru arau bidez aurreko paragrafoan ezarritakoez gainera beste solidaritate-kasu batzuk ezarri ahal izango dira.

9. ARTIKULUA

1. Subjektu pasiboa zerga-betebehar nagusia eta hari datxezkion betebehar formalak zergadun gisa nahiz haren ordezkio gisa bete behar dituen zergapekoa da. Zerga-kuota beste zergapeko bati jasanarazi behar diotenak ere subjektu pasibo izango dira, zergari buruzko foru arauan besterik ezarri ezean.

2. Zergaduna zerga-egitatea egiten duen subjektu pasiboa da.

3. Zergadunaren ordezkioa da foru arau batean ezarritakoaren arabera zerga-betebehar nagusia eta hari datxezkion betebehar formalak zergadunaren ordezkio bete behar dituen subjektu pasiboa.

Ordezkoak ordaindutako zerga-betebeharren zenbatekoa eskatu ahal izango dio zergadunari, foru arau bidez besterik ezarri ezean.

III. KAPITULUA. OINORDEKOAK

10. ARTIKULUA



1. Zergapeko bat hiltzen denean, bete gabe gelditzen diren zerga-betebeharrak haren jaraunslerei eskualdatuko zaizkie, legeria zibilean jaraunspena eskuratzeari buruz ezarritakoa eragotzi gabe.

Jaraunspena legatuen bidez banatzen bada eta kuota-parteko legatuak ezartzen badira, zerga-betebeharrak legatu-hartzaileei eskualdatuko zaizkie jaraunslentzat ezarritako baldintza berberetan.

Zehapenak ez dira inolaz ere eskualdatuko. Halaber, erantzulearen betebeharra ere ez da eskualdatuko, hil baino lehen erantzukizuna deribatzeko erabakia jakinarazten denean izan ezik.

2. Kausatzailea hiltzen denean zerga-zorra likidatu gabe egon arren, sortutako zerga-betebeharrak oinordekoei eskualdatuko zaizkie; hala gertatzen denean, oinordeetako edozeini zuzenduko zaizkio jarduketak.

3. Jaraunspena jasogabe dagoen bitartean, kausatzailearen ordezkariak bete beharko ditu haren zerga-betebeharrak.

Administrazioak kausatzailearen zerga-betebeharrak zenbatekotzeko, zehazteko eta likidatzeko egiten dituen jarduketak jaraunspen banatu gabearen ordezkariarekin burutu edo jarraitu beharko dira. Prozedura amaitutakoan oraindik ez badira jaraunslak ezagutzen, likidazioak jaraunspenaren izenean egingo dira.

11. ARTIKULUA

1. Nortasun juridikodun sozietate edo erakunde bat desegiten eta likidatzen bada eta legeriak bazkideen, partaideen edo titularkideen ondasun erantzukizuna mugatzen badu, bete gabeko zerga-betebeharrak horiei eskualdatuko zaizkie; haiek betebeharrak solidarioa izango dute, beraiei dagokien likidazio-kuotaren balioaren mugarekin.

Nortasun juridikodun sozietate edo erakunde bat desegiten eta likidatzen bada eta legeriak bazkideen, artaideen edo titularkideen ondasun erantzukizuna mugatzen ez badu, bete gabeko zerga-betebeharrak guztiak horiei eskualdatuko zaizkie, eta solidarioki bete beharko dituzte.

2. Merkataritzako sozietate bat likidaziorik gabe azkentzen edo desegiten bada, bete gabeko zerga-betebeharrak oinordeko pertsona edo erakundeei edo eragiketaren onuradun direnei eskualdatuko zaizkie. Arau hau merkataritzako sozietate baten aktibo eta pasibo osoa lagatzen denean ere aplikatuko da.

3. Fundazioak desegiten direnean, bete gabe uzten dituzten zerga-betebeharrak ondasunen eta eskubideen destinatarioei eskualdatuko zaizkie; haiek haien erantzule izango dira, balioaren mugarekin.

4. Ordenantza honetako 8. artikuluko 3. atalean aipatzen diren erakundeak desegiten direnean, bete gabe utzi dituzten zerga-betebeharrak oso-osorik eskualdatuko zaizkie partaideei edo titularkideei.

5. Sozietatearen edo erakundearen nortasun juridikoa iraungi edo desegiten denean zerga-zorra likidatu gabe egoteak ez du eragotziko sortutako zerga-betebeharrak oinordekoei eskualdatzea. Jarduketak hauetako edozeinekin egin ahal izango dira.

6. Artikulu honetan aipatutako sozietateei eta erakundeei arau-hausteengatik ezartzen zaizkien zehapenak beraien oinordekoei eskatu ahal izango zaizkie, aurreko paragrafoetan ezarritakoari lotuta, beraiei dagokien likidazio-kuotaren edo eskualdatutako ondasunen balioaren mugarekin.

IV. KAPITULUA. ZERGA-ERANTZULEAK

12. ARTIKULUA

1. Foru arau bidez, zordun nagusiez gainera beste pertsona edo erakunde batzuk ere ezar daitezke zerga-zorraren erantzule solidario zein subsidiario. Ondore horietarako, zordun nagusizat joko dira ordenantza fiskal honetako 8. artikuluko 2. atalean aipatutako zergapekoak.

2. Aurkako beren-beregizko legezko agindurik izan ezean, erantzukizuna beti izango da subsidiarioa.

3. Erantzukizunak borondatezko aldiak eskaturiko zerga-zor osoa hartuko du.

Erantzuleak borondatez ordaintzeko ematen zaion aldiak sarrera egiten ez badu, ordainarazpen-aldia hasiko da eta bidezko errekaratuak eta interesak eskatuko dira.

4. Erantzukizunean ez dira zehapenak sartuko, foru arau bidez ezartzen diren salbuespenetan izan ezik.

5. Foru arau bidez besterik xedatzen ez bada, erantzukizun adierazpena administrazio-egintzaren bidez egin behar da, zergei buruzko foru arauko 179. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat etorritik.

Administrazio-likidazioetan, erantzukizuna ordaintzeko ordainarazpen-aldia amaitu baino lehen adierazten bada, aurrean aipatutako administrazio-egintza emateko eskumena likidazioa emateko organo eskudunak edukiko du. Gainerako kasuetan, eskumen hori zergak biltzen dituen organoak edukiko du.

6. Erantzuleei zerga-zorra eta, hala denean, zehapenak ordaintzeko eta betetzeko eskatzeko bideratzen den administrazio egintzaren deribazioa zergei buruzko foru arauko 180. eta 181. artikuluetan xedaturikoarekin bat etorritik burutuko da. Erantzukizun subsidiarioaren kasuan, aurretik zordun nagusia eta erantzule solidarioak kobrazina direla adierazi beharko da.

7. Erantzuleek zordun nagusiak dirua itzultzeko eskubidea dute, legeria zibilean ezarritakoaren arabera.

13. ARTIKULUA

1. Honako pertsona edo erakunde hauek izango dira zerga-zor osoaren eta, hala denean, zehapenen erantzule solidario:

- a) Zergen arloko arauen bat hausten dutenak edo horretan modu aktiboan laguntzen dutenak.
- b) Aurreko a) letran xedaturikoa kontuan hartuta, ordenantza honetako 8. artikuluko 3. atalean aipatzen diren erakundeen partaideak edo titularkideak, bakoitza bere partaidetzaren proportzioan.



2. Halaber, ustiapen edo jarduera ekonomikoen titulartasunean edo jardunean zeinahi kontzepturen zioz oinordeko diren pertsona edo erakundeak aurreko titularrak jardunean sortzen diren zerga-betebeharren eta zehapenen erantzule solidarioak izango dira. Erantzukizunean egindako edo egin beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak ez sartzearen ondoriozko betebeharrak ere sartuko dira.

Hala ere, ustiapen eta jarduera ekonomikoen titulartasuna eskuratu nahi dutenek atal honetan ezarritako erantzukizuna mugatu ahal izango dute zergei buruzko foru arauko 180. artikuluko 2. atalean araututako prozeduraren bidez.

Atal honetan ezarritako erantzukizuna ezin izango da aplikatu kasu hauetan:

- a) Elementu bakarra eskuratzen denean; salbuespena dago: elementua pertsona edo erakunde batek nahiz batzuek eskuratzea eta horri esker ustiapenak edo jarduerak, edo haren adarretako batek, aurrera egitea.
- b) Oinordetza heriotzagatik gertatzen denean; honelako kasuetan foru arau honetako 38. artikuluan ezarritakoa izango da aginduzko.
- c) Zordun konkurtsatu baten ustiapen edo jarduera ekonomikoa eskuratzen denean, baldin eta konkurtso-prozedura batean eskuratzen bada

3. Ustiapen edo jarduera ekonomikoa egiteko behar diren aktiboak eta enpresa-antolakuntza formalki pertsona fisiko edo juridiko bat baino gehiagoren artean banatuta badaude eta, benetako kontrola batek bakarrik duela, horrela enpresaren errealitate globala ezkutatzen bada zerga-zorren ordainketa saihestea ahalbidetzen duten hainbat erakunde eratuta, pertsona fisiko edo juridiko horiek banatuta dituzten aktiboen bitartez solidarioki erantzungo diete zerga-zor osoari eta, behar denean, jarduera edo ustiapen ekonomikoaren ondoriozko zehapenei.

Benetako kontrola dagoela pentsatuko da sozietatearen kapitalaren edo ondarearen %25eko edo hortik gorako zuzeneko edo zeharkako partaidetza dagoenean.

4. Era berean, honako pertsona edo erakunde hauek ordaintzeke dagoen zerga-zorren eta ezartzen diren zehapenen ordainketaren erantzule solidarioak izango dira, Zerga Administrazioak bahitu edo besterendu dituen ondasun eta eskubideen balioaren mugarekin:

- a) Zerga Administrazioaren jarduketa eragozteko asmoarekin, zerga ordaindu behar duenaren ondasunak edo eskubideak ezkutatzen edo eskualdatzen dituztenak edo horretan laguntzen dutenak.
- b) Erruz edo arduragabekeriak enbargo-aginduak betetzen ez dituztenak.
- c) Enbargoaren, kautelazko neurriaren edo bermearen eraketaren berri izan arren, enbargatutako ondasunak edo eskubideak, edo kautelazko neurria edo bermea ezarrita duten ondasunak edo eskubideak kentzen laguntzen dutenak, edo hori eragozten ez dutenak.
- d) Zordunaren ondasunak gordetzen dituzten pertsonak edo erakundeak, enbargoaren jakinarazpena jaso ondoren haiek kentzen laguntzen badute edo hori eragozten ez badute.

5. Aurreko ataletan ezarritakoez gainera, foru arau bidez erantzukizun solidarioko beste kasu batzuk ezarri ahal izango dira.

14. ARTIKULUA

1. Ondoko pertsona edo erakunde hauek izango dira zerga-zorren erantzule subsidiario:
 - a) Ordenantza honetako 13. artikuluko 1. ataleko a) letran xedatutakoa eragotzi gabe, pertsona juridikoen egitatezko edo zuzenbidezko administratzaileak, baldin eta, zergen arloko arau-haustea egin ondoren, zerga-betebeharrak eta -eginbeharrak betetzeko beharrezko egintzak egiten ez badituzte, ardurapean dituztenei betebeharrak ez betetzen utzi badiete edo arau-haustea ahalbidetzeko erabakia hartu badute. Zehapenak ere sartuko dira beraien erantzukizunean.
 - b) Jarduerak egiteari uzten dioten pertsona juridikoen egitatezko edo zuzenbidezko administratzaileak, jarduera horien ondorioz sortu eta jarduerari uztean bete gabe dauden zerga-betebeharrei dagokienez, baldin eta ordaintzeko egin beharreak egin ez badute edo ez ordaintzeko erabakia hartu badute edo horretarako neurriak aplikatu badituzte.
 - c) Konkurtso-administrazioaren kideak eta erakunde eta sozietateen likidatzaileak, oro har, baldin eta egoera horiek gertatu aurretik sortutako zerga-betebeharrak, zergapekoei egotzi ahal zaizkienak, erabat betetzeko beharrezko kudeaketak egiten ez badituzte. Azken kasua gertatzen bada, egoeren ondoriozko zerga-betebeharrei eta zehapenei dagokienez administratzaile gisa erantzun beharko dute administratzailearen funtzioak eratzikita dituztenean.
 - d) Foru arau bidez zerga-zorra ordaintzeko xedatutako ondasunen eskuratzzaileak, ZFAOko 80. artikulua araber.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoez gainera, foru arau bidez erantzukizun subsidiarioko beste kasu batzuk ezarri ahal izango dira.

V. KAPITULUA - UDAL ZERGEN ARLOAN JARDUTEKO GAITASUNA

15. ARTIKULUA

Zuzenbidearen arabera dutenenaz gainera, adingabeek eta ezgaituek ere badute zergen arloan jarduteko gaitasuna, hain zuzen ere ordenamendu juridikoaren arabera gurasoen ahala, tutoretza, kuradoretza edo judizioko defentsa egiten duen pertsonaren laguntzarik gabe egin ditzaketen jardueren ondoriozko zerga-harremanetan jarduteko gaitasuna. Adingabe ezgaituek, aldiz, ez dute izango gaitasun hori euren eskubideak baliarazteko eta interesak defendatzeko ezgaituta badaude.

16. ARTIKULUA

1. Jarduteko gaitasunik ez duten subjektu pasiboen ordezkariak euren legezko ordezkariak jardungo dute.

2. Pertsona juridikoen legezko ordezkari gisa zerga-jarduketak gertatzen direnean haien ordezkaritza (behar bezala emandako lege-xedapen edo erabakia dela bide) duten organoen titular diren pertsonak jardungo dute.

3. Ordenantza honetako 8. artikuluko 3. atalean aipatutako izakien legezko ordezkari gisa haien ordezkaritza dutenek jardungo dute, baldin eta ordezkaritza hori modu fede-emailean frogatzen bada. Aitzitik, ordezkariarik izendatu ez bada, itxuraz kudeaketaren edo zuzendaritzaren ardura duena hartuko da ordezkaritzat eta, horren ezean, zeinahi kide edo partaide.

17. ARTIKULUA

1. Jarduteko gaitasuna duten zergapekoek ordezkari bitartez jardun ahal izango dute. Ordezkaria izendatzen bada, geroztiko administrazio-jarduketak berarekin egingo dira, berariaz besterik adierazi ezean.

2. Errekurtsoak edo erreklamazioak jartzeko, haietan atzera egiteko, eskubideei uko egiteko, betebeharrak zergapekoaren izenean bere gain hartzeko edo aintzatesteko, bidegabeko sarrerak edo errenboltsoak eskatzeko, eta Zergei buruzko Foru Arauko III., IV. eta V. tituluetan araututako prozeduretan zergapekoak sinatu behar duen gainerako kasuetan, ordezkaritza Zuzenbidean balioduna den eta hura modu sinesgarria jasoarazten duen bide baten bitartez frogatu behar da, edo bestela interesdunak adierazpena egin behar du administrazio-organo eskudunera bertaratuta.

Ondore horietarako, baliodunak izango dira prozedura jakin batzuetarako Zerga Administrazioak onesten dituen ordezkaritza-agiri normalizatuak.

3. Izapide huts diren egintzetan, ordezkaritza emantzat joko da.

4. Zergak kudeatzeko herritarren laguntza behar denean, edo erregelamenduz ezartzen diren kasuetan, Zerga Administrazioari agiriren bat bide telematikoz aurkezten bazaio, aurkezleak kasu bakoitzean beharrezko den ordezkaritza eduki beharko du. Zerga Administrazioak noiznahi eskatu ahal izango du ordezkaritza frogatzeko, eta hori artikuluko honetako 2. atalean ezarritakoaren arabera egin ahal izango da.

5. Aurreko 2., 3. eta 4. ataletan aipatutakoak ez beste jarduketa batzuk egiteko ordezkaritza arauz ezartzen den moduan frogatu ahal izango da.

6. Ordenantza fiskal honen 8. artikuluko 5. paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik, zerga-betebehar batean hainbat titular egonez gero, haietako edozein hartuko da ordezkaritzat, beti ere berariaz besterik adierazi ezean.

7. Ahalmen falta edo urritasuna gorabehera, egintza burututzat emango da, baldin eta ahal hori aurkezten bada edo akatsa 10 eguneko epean konpontzen bada. Epe hori administrazio-organo eskudunak eman behar du.

18. ARTIKULUA

Zerga Administrazioarekiko harremanen ondoretarako, egoitza Espainiako lurraldean ez duten zergapekoek Bizkaiko Lurralde Historikoan helbideratuta dagoen ordezkaria izendatu behar dute lurralde horretan establezimendu iraunkorren bitartez jarduten badute, zergen arloko arautegiak hori berariaz ezartzen badu edo, egindako eragiketa nahiz jardueraren ezaugarriengatik edo lortutako errentaren zenbatekoagatik, Zerga Administrazioak eskatzen badu.

Izendapena Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaio zergaren arautegian aipatutako moduan.

VI. KAPITULUA. EGOITZA FISKALA

19. ARTIKULUA

1. Zergapekoa Zerga Administrazioarekiko harremanetarako dagoen lekua da egoitza fiskala.
2. Hauxe da egoitza fiskala:
 - a) Pertsona fisikoena, ohiko egoitza.
 - b) Pertsona juridikoena eta Sozietateen gaineko Zergaren kargapeko gainerako erakundeena, beraien sozietate-egoitza, baldin eta bertan zentralizaturik badaude administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori egiten den lekua hartuko da aintzat.
 - c) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsonen edo erakundeen zerga-egoitza non dagoen zerga bakoitzari buruzko arautegian ezarritakoaren arabera zehaztuko da. Araututa ez badago, zerga-egoitza Ordenantza honetako 18. artikuluan aipatutako ordezkariarena izango da. Establezimendu iraunkorren zerga-egoitza administrazio-kudeaketa edo negozioen zuzendaritza egiten den lekua izango da.
 - d) Sozietate zibilena eta nortasun juridikorik gabeko izakiena, kudeaketa eta zuzendaritza egiten diren lekua. Baldin eta aurreko b), c) eta d) letretan dauden irizpideak aplikatuta zerga-egoitza zehaztu ezin bada, haien ibilgetuaren baliorik handiena dagoen lekua hartuko da kontuan.
3. Zergapekoek euren egoitza non dagoen adierazi behar diote Zerga Administrazioari.
4. Kontzertu Ekonomikoko 43. artikuluko bosgarren paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, zergapeko batek bere egoitza aldatzen badu, horren berri eman beharko dio Zerga Administrazioari berariazko adierazpenaren bidez. Egoitza aldatzeak ez du ondorerik izango Administrazioan harik eta arestian aipatutako zerga-aitorpena aurkeztu arte.
5. Zergapekoak zerga-egoitza aldatu duela jakinarazten ez badio Zerga Administrazioari aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, hark edozein zerga-agiritan adierazi edo zainpeturiko azken zerga-egoitza hartuko da jakinarazpen-ondoreetarako. Zergapekoak zerga-egoitza aitortzen ez badu, aitortu arteko aldian titular den edozein higiezin edo ustiapen ekonomikoren kokalekua hartuko da beraren zerga-egoitzatzat.
6. Administrazioak zergapekoen zerga-egoitza zuzendu ahal izango du egiaztapenen bidez. Kontrako frogarik egon ezean, pertsona juridikoek zerga-egoitza aldatzen badute eta aurreko edo hurrengo urtean jarduerarik egin ez badute edo jarduerari utzi badiote, aldaketarik ez dela gertatu pentsatuko da.
7. Zergak aplikatzeko prozeduren eta zehapen-prozeduraren ondoriozko jarduketak egiteko eskudun den zerga administrazioa zehazteko, zergapekoak zerga-egitatea edo arau-haustea egitean izan duen zerga-egoitza hartuko da kontuan.

VII. KAPITULUA. ZERGA-OINARRIA ETA LIKIDAZIO-OINARRIA

20. ARTIKULUA

Zerga-egitatea neurtu edo balioestearen emaitzako magnitudea da zerga-oinarria, diruzkoa zein bestelakoa.

Tributu bakoitzaren ordenantza bereizian ezarriko dira zerga-oinarria finkatzeko bitartekoak eta metodoak, ondoko araubide hauen barruan: zuzeneko zenbatespena, zenbatespen objektiboa eta zeharreko zenbatespena.

21. ARTIKULUA

Zerga-oinarriari zerga bakoitzari buruzko foru arauan edo dagokion ordenantza fiskalean ezartzen diren murriztapenak (bidezkoak badira) aplikatzearen emaitzako kopurua da likidazio-oinarria .

VIII. KAPITULUA. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

22. ARTIKULUA

Udalak, bere ahalmenak erabiliz eta foru arauen markoan, bere zergei dagozkien gaietan zerga-onurak eman ditzake, bere aurrekontuen kargura.

Horretarako, Udalak bere lurralde eremuan, oro har, zerga-onurak aplikatzeari buruzko erabakia hartuko du. Erabakia «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu beharko da.

23. ARTIKULUA

1. Zerga bakoitzerako arautegian ezarritakoa eragotzi gabe, zerga-onura interesdunek eskatuta ematen denean, honela aurkeztu beharko da eskabidea:

a) Errolda edo matrikularen bidez kudeatzen den aldizkako zerga denean, kasuan kasuko ordenantzan alta emateko edo aldarazpena egiteko ezarritako manuzko epean aurkeztu beharko da.

Behin emanaz gero, zerga-onura jarraikiko likidazio guztietan aplikatuko da, harik eta ematea eragin duten egitatezko edo zuzenbidezko inguruabarrak aldatu arte.

b) Zergak autolikidaziorako araubidea ezarrita badu, autolikidazioa edo aitorpen-likidazioa aurkezteko epean aurkeztu beharko da.

c) Gainerako kasuetan, zerga-aitorpena aurkezteko epean aurkeztu beharko da, edo zerga-betebeharra dakarren baimen edo onespen eskabidea aurkeztean, kasuan kasukoa.

2. Onura jasotzeko eskabidea aurreko zenbakian aipatutako epeetan aurkeztuz gero, onuraren aintzatespenak eskatu den ekitaldiari dagokion zerga-betebeharra sortzen denetik aurrera izango ditu ondoreak. Bestela, onurak ez ditu ukituko eskaera aurkeztu aurretik sortarazitako kuotak.

3. Zerga bakoitzari buruzko arautegian zerga-onurak gozatzeko ezartzen diren beharkizunak betetzen direlako frogak subjektu pasiboak ekarri beharko ditu.

24. ARTIKULUA

Bestelako zerga-onurak horretaz eskumena duen organoak emango ditu, inguruabarrak egiaztatu ondoren.

IX. KAPITULUA. ZERGA-ZORRA

1. ATALA: KARGA-TASA ETA ZERGA-ZORRA

25. ARTIKULUA

Likidazio-oinarriari zerga kuota osoa kalkulatzeko aplikatzen zaion kopurua, koefizientea edo portzentajea da karga-tasa

Karga-tasak zehatzak edo ehunekoak izan daitezke, eta zerga bakoitzari buruzko foru arauak edo ordenantza fiskalak xedatutakoaren arabera aplikatu beharko zaizkio zerga-oinarriaren unitate, unitate multzo edo tarte bakoitzari.

Zerga batean, likidazio-oinarriaren unitate edo tarteei aplikatu ahal zaien karga-tasen multzoari tarifa esaten zaio.

26. ARTIKULUA

1. Kuota osoa honela zehaztuko da:

- a) Likidazio-oinarriari karga-tasa aplikatuta.
- b) Berariaz adierazitako kopuru finkoa izango da.

2. Kuota osoaren zenbatekoa zerga bakoitzari buruzko foru arauan edo ordenantza fiskalean kasu bakoitzerako ezarritako murriztapenak edo mugak aplikatuta aldatu ahal izango da.

3. Kuota osoari zergari buruzko foru arauan edo ordenantza fiskaletan ezarritako kenkariak, hobariak, batuketak edo koefizienteak, kasuan kasukoak, aplikatuta kalkulatzen da kuota likidoa.

4. Kuota likidoari zergari buruzko arategian ezarritako kenkarien, zatikako ordainketen, atxikipenen, konturako sarreraren eta kuoten zenbatekoak kenduta kalkulatzen da kuota diferentziala.

5. Ez da ordainagiririk luzatuko ez zerga-kitapenik egingo kuota 6 euro baino txikiagoa denean.

27. ARTIKULUA

1. Zerga-betebehar nagusiaren edo konturako ordainketak egin beharren ondorioz sartu behar den kuota edo kopurua da zerga-zorra.

2. Horrez gainera, kasu batzuetan ondokoak ere sartu behar dira zerga-zorretan

- a) Berandutza-interesa.
- b) Aitorpena epez kanpo aurkezteagatiko errekarua
- c) Ordainarazpen-aldiko errekaruak.

d) Legez eska daitezkeen oinarrien edo kuoten gaineko errekaruak, Foru Ogasunarentzat edo beste entitate publiko batzuentzat direnak.

3. Zerga-zehapenak ez dira zerga-zorraren barruan sartuko.

2. ATALA: ZERGA-ZORRA AZKENTZEA

28. ARTIKULUA

1. Ordainketa, preskripzioa, iraungipena, konpentsazioa edo barkamena dela bide azken daitezke zerga-zorrak bai eta legezko xedapenetan ezarritako gainerako bideen bitartez ere.

2. Zerga-zorra ordaintzeak, konpentsatzeak edo barkatzeak ordaindu, konpentsatu edo barkatutako zenbatekoa baizik ez du kitatuko.

29. ARTIKULUA

1. Zerga-zorra eskudirutan ordaindu behar da.

2. Aparteko kasuetan, Zerga Administrazioak zerga-zorra borondatezko edo ordainarazpen-aldian gauzatan, edozein ondasun edo eskubide emanda, ordaintzea onartu ahal izango du.

3. Zerga-arauegian zerga-zorra eskudiruz edo gauzatan ordaintzeko bideak eta moduak arautuko dira, bai eta ordainketa teknika eta bitarteko elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bidez egiteko betekizunak eta baldintzak ere.

4. Zerga-zorra eskudirutan ordaindutzat hartuko da zenbatekoa organo eskudunen edo hura onartzeko baimena duten erakundeek kutxetan sartzen denean.

30. ARTIKULUA

1. Zerga-zorrak borondatezko aldi ordaintzeko epeak honako hauek dira:

a) Autolikidazioen emaitzako zorrak kasuan kasuko zergaren arautegian ezarritako epeetan ordaindu behar dira.

b) Jakinarazten direnetik hilabete pasatu baino lehen ordaindu behar dira administrazioak egindako likidazioen emaitzako zorrak eta ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko, aldeak eskatutako konpentsazioa egiteko, zorra ordaintzeko ondasunak edo eskubideak emateko edo zergak biltzeko prozedura eteteko eskabidea ukatzearen ondorioz eskatu ahal direnak .

c) Aldizkako kobrantzako likidazioen eta taldeka jakinarazten diren likidazioen emaitzako zorrak dagokien ordenantza fiskalean ezartzen diren epeetan ordaindu behar dira.

2. Zergei buruzko Foru Arauko 165. artikuluko 5. atalean xedatutakoa eragotzi gabe, zerga-zorra borondatez ordaintzeko ezarritako aldi osorik ordaintzen ez bada, automatikoki hasiko da ordaintzeke dagoen zatia ordainarazteko aldia.

3. Ordainarazpen-aldia hasi eta premiamendu-probidentzia jakinarazitakoan, zerga-zorra borondatez ordaintzeko ezarritako aldi osorik ordaintzen ez bada, automatikoki hasiko da ordaintzeke dagoen zatia ordainarazteko aldia.

Epealdi horretan zorra osorik ordaintzen ez bada edo. ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskatzen ez bada, gelditzen den zerga-zorra zordunaren ondarearekin ordainaraziko da.

31. ARTIKULUA

1. Zerga-zorrak autonomoak dira. Hainbat zor dituen zergapekoak askatasuna izango du ordainketa bakoitza berak nahi duen zorrari egozteko.
2. Geroago mugaeguneratzen den zor bat kobratzeak ez du azkenduko Zerga Administrazioak kobratu ez dituen aurrekoak jasotzeko duen eskubidea.
3. Derrigorrez ordainarazten bada, ofizioz konpentsatzen bada eta zergapeko baten hainbat zerga-zor pilatzen badira eta osorik azkendu ezin badira, Zerga Administrazioak Herri Ogasunaren interesei babesik handiena ematen dien irizpidearekin bat etorririk aplikatuko du ordainketa (hurrengo paragrafoan salbuespena xedatu da).
4. Administrazio baten eta haren menpeko Zuzenbide publikoko beste erakunde batzuen aldeko hainbat zerga-zor pilatzen badira, administrazioari dagozkienak kobratuko dira lehenik.

32. ARTIKULUA

1. Borondatezko aldian edo ordainarazpen-aldian dauden zerga-zorrak arauz finkatzen denaren arabera geroratu edo zatikatu ahal izango dira, zergapekoek eskatuta, baldin eta beraren ekonomiaren eta finantzen egoera dela eta ezarritako epeetan ordaindu ezin badu.
2. Geroratu edo zatikatzen diren zorrak arauz ezarritakoaren arabera bermatu beharko dira. Era berean, zergapekoa bermeak eratu beharretik erabat edo partzialki askatu ahal izango den kasuak eta baldintzak garatuko dira, eta Zerga Administrazioari bermeak aurkeztu aurretik balioesteko noiz eskatu ahal izango zaion adieraziko da.
3. Ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskabidea borondatezko aldian aurkezten bada, ordainarazpen-aldia hastea eragotziko da baina ez berandutza-interesa sortzea..

Ordainarazpen-aldian, eskabideak zergapekoari enbargatutako ondasunak besterentzeko erabakia jakinarazi arte aurkeztu ahal izango dira. Gerorapena edo zatikapena izapidetzen den bitartean Zerga Administrazioak premiamendu-prozedura hasi ahal izango du edo, behar denean, berriro ekin ahal izango dio. Alabaina, enbargatutak ondasunak besterentzeko jarduketak gerorapena edo zatikapena ukatzen duen ebazpena jakinarazi arte eten beharko dira.

33. ARTIKULUA

Zergei buruzko Foru Arauaren 26, 27 eta 28 artikuluetan ezarritakoari jarraituz arautuko dira berandutza-interesa, aitorpena epez kanpo aurkezteagatikko erreargua eta ordainarazpen-aldiko errearguak.

34. ARTIKULUA



1. Zerga Administrazioak zerga-zorra bidezko likidazioaren bidez zehazteko duen ahalmena preskribitu eta iraungi egin daiteke.
2. Preskripzioa eta iraungipena aldi berean gertatzen dira. Hori dela eta, Administrazioak likidazio egokiaren bitartez zerga-zorra zehazteko duen ahalmena ezin izango da preskripzioa edo iraungipena gertatu ostean erabili.
3. Zerga Administrazioak likidatuta eta autolikidatuta dauden zerga-zorren ordainketa eskatzeko duen ahala preskribitu egin daiteke.
4. Zerga bakoitzaren arautegian ezarritakoaren ondoriozko itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuen itzulketak eskatu eta eskuratzeko zergapekoek dituzten eskubideak ere preskribitu egin daitezke.
5. Preskripzioak eta iraungipenak zerga-zorra azkenduko dute eta ofizioz aplikatuko dira, are zorra dagoeneko ordainduta dagoenean ere.

35. ARTIKULUA

1. Ordenantza honetako 34. artikuluko 1., 3. eta 4. ataletan aipatutako administrazioaren ahalak eta zergapekoen eskubideak lau urteren buruan preskribituko dira
2. Preskripzio epeen konputua eta epeen etetea Zergei buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

36. ARTIKULUA

1. Zerga-zorra likidazioaren bitartez zehazteko administrazioaren ahala sei urteren buruan iraungiko da.

Hala ere, iraungipenak ez ditu ukituko zergapekoak zerga-arautegiaren arabera itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuaren berreskurapena lortzeko duen eskubidea aintzatesteko beharrezkoak diren likidazio-egintzak eskubide horiek preskribitu gabe dauden artean.

2. Aurreko artikuluan aipatutako ahalaren iraungipen-epea aitorpena edo autolikidazioa aurkezteko arauzko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.
3. Iraungipen-epea etetea Zergei buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera arautuko da.

37. ARTIKULUA

1. Zergapeko baten zerga-zorrak osorik edo partzialki azkendu ahal dira berari administrazio-egintza bidez aintzatsitako kredituen bidez konpentsatuta, erregelamenduz ezartzen diren baldintzen arabera.
2. Konpentsazioa ofizioz edo zergapekoak eskatuta egingo da.

38. ARTIKULUA

Zerga-zorrak foru arau bidez bakarrik barka daitezke, bertan ezarritako betekizunak eta zenbatekoa kontuan harturik.

39. ARTIKULUA

1. Zergapekoen kaudimengabeziagatik zergak biltzeko prozeduretan ordaindu ezin izan diren zerga-zorrak kreditu kobraezin adieraziko dira, preskripzio-epearen barruan birgaitzen ez diren bitartean.

2. Preskripzio-epea mugaeguneratu arren zerga-zorra birgaitzen ez bada, iraungi egingo dira.

40. ARTIKULUA

1.- Kobratu ezineko kredituen kasuan, behin-behineko baja emango zaie honako baldintza hauetan sartzen direnei:

Matrikulazioa 10 urte baino gehiagoko antzinatasunez eginda duten ibilgailuei dagokien Trakzio Mekanikodun Ibilgailuei buruzko Udal Zergaren ordainagiriei - Betearazteko Diru-Bilketak kobrantza kudeaketa egin eta helbide ezezaguna zutelako emaitza negatiboa izan dutenei-behin-behineko baja emango zaie Diru-Bilketan eta Errolda edo kobrantzarako zerrendan, eta horrek ez du eragotziko Ekonomia eta Ogasun Zerbitzuek eta Udal Diru-Bilketak Trafiko Buruzagitzari eskualdatzeak nahiz bajak burutzeko frogagiriak eskatzen dituzten zergadunei preskribitu gabeko azken lau urteak exigitzea.

3. ATALA: ZERGA-KREDITUAREN BERMEAK

41. ARTIKULUA

Mugaeguneratuta eta ordaindu gabe dauden zerga-kredituak kobratzeko lehentasuna izango du Udal Ogasunak beste hartzekodun batzuekin batera suertatuz gero; hala ere, badago salbuespen bat: hartzekodunek jaso beharreko jabaria, bahia, hipoteka edo bestelako eskubide erreala Herri Ogasunak bere eskubidea jasoarazi baino lehen erregistratu izana erregistro egokian, hurrengo artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe.

42. ARTIKULUA

Erregistro publikoetan erregistratu ahal diren ondasunak edo eskubideak edo beraien zuzeneko produktuak, egiazkoak zein ustekoak, aldizka kargatzen dituzten zergetan, Herri Ogasunak lehentasuna izango du gainerako hartzekodun edo eskuratzaille guztien aldean, nahiz eta hauek euren eskubideak erregistratuta eduki, ordainketa eskatzen den egutegiko urtean eta aurrekoan sortu eta ordaindu ez den zorra kobratzeko.

43. ARTIKULUA

1. Legezko xedapen bidez zerga-zorra ordaintzeari lotutako ondasunen eskuratzailleek haiekin erantzungo dute modu subsidiarioan, zerga-ekintzaren deribazioa dela bide, zorra ordaintzen ez bada.



2. Eskualdatutako ondasunak eta eskubideak horrelako eskualdaketak, eskuraketak eta inportazioak kargatzen dituzten zergei dagozkien kopuruak, likidatuak zein likidatu gabeak, ordaintzeko erantzukizunari lotuta geratuko dira dena dela edukitzailea. Dena den, salbuespenak daude: bata edukitzailea erregistro-fede publikoak babestutako gainontzekoa izatea da eta bestea, erregistratu ezin diren ondasun higikorrei dagokiena, ondasunak fede onez eta titulu zuzenez merkataritza edo industriako establezimendu batean eskuratu direla frogatzea.

II. TITULUA. ZERGA-KUDEAKETA

I. KAPITULUA. ZERGEN ARLOKO JARDUKETEI ETA PROZEDUREI BURUZKO OROTARIKO PRINTZIPIOAK ETA ARAUAK

44. ARTIKULUA

Tributuen aplikazio-eremuan ondokoak sartzen dira: Zerga Administrazioak zergapekoei informazioa eta laguntza emateko egiten dituen jarduerak eta tributua kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko egiten dituenak, eta zergapekoek euren eskubideez baliatzean edo euren zerga-betebeharrak betetzeko egiten dituzten jarduketak.

45. ARTIKULUA

Zerga Administrazioak zergapekoei beraien eskubideei eta betebeharrei buruzko beharrezko informazioa eta laguntza eman behar dizkie.

Horretarako, besteak beste, Zergei buruzko Foru Arauan ezarritakoak egingo dituzte (83. artikulutik 90.era)

46. ARTIKULUA

1. Interesdunek zergen aplikazioan lagundu dezakete, arau bidez ezartzen denari lotuta..

2. Pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek zein pribatuek, eta Zergei buruzko Foru Arauko 34. artikuluko 3. atalean aipatutako erakundeek euren zerga-betebeharren inguruko denetarikoko datu, txosten aurrekari eta frogagiriak, zerga-ordainketan eragina izan dezaketenak, eman behar dizkiote Zerga Administrazioari, bai eta beste pertsona batzuekin izan dituzten harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioen ondoriozko guztiak ere, Zergei buruzko Foru Arauaren 92. artikuluan ezarritako moduan.

3. Era berean, Zergei buruzko Foru Arauko 93. artikuluan adierazitako era guztietako agintari eta erakunde publikoek Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkiote xedapen orokorren bidez edo banako errekerimenduen bidez eskatzen dituen zerga-ordainketarako datu, txosten eta aurrekari guztiak, eta berari eta beraren agenteei laguntza, sorospena eta babesaren eman behar dizkiete eren eginkizunak bete ditzaten..

47. ARTIKULUA

1. Zergen arloko jarduketak eta prozedurak ofizioz edo zergapekoek eskatuta has daitezke; zergapekoek autolikidazioa, aitorpena, eskaera edo zerga-arautegian ezarritako beste bideren bat balia dezakete horretarako.

2. Zergen arloko jarduketan eta prozedurak hasteko agirietan zergapekoaren izen-abizenak edo sozietatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia agertu behar dira nahitaez, eta behar den kasuetan ordezkariarenak ere bai.
3. Zergen arloko jarduketak eta prozedurak egitean, Administrazioak ahal dien guztian lagunduko die zergapekoei euren eskubideak bailarazten eta euren betebeharrak betetzen; Zergei buruzko Foru Arauan azaltzen da nola emango dien laguntza hori.
4. Zerga-prozedurak honela amaituko dira: ebazpen bidez; atzera eginez gero; eskaeraren oinarri izan den eskubideari uko eginez gero; gertaera bat dela bide prozedurarekin ezin jarraitu bada; iraungitzeagatik; errekerimenduaren xede izan den betebeharra betez gero; zerga-ordenamenduan ezarritako beste kausaren bategatik.

48. ARTIKULUA

1. Zerga-likidazioa ebazpen-egintza da; beraren bidez Zerga Administrazioaren organo eskudunak zerga-zorraren zenbatekoa edo zerga-arautegiaren arabera itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehazten du.

Zerga Administrazioak ez du zertan doitu likidazioak zergapekoek euren autolikidazio, aitorten, eskaera edo bestelako agirietan adierazitako datuetara.

2. Zerga-likidazioak behin-behinekoak edo behin betikoak izango dira.
3. Hauexek izango dira behin betikoak:
 - a) Zerga-betebeharren elementu guztiak egiaztatu eta ikertu ondoko ikuskapen-prozeduretan egiten direna, Zergei buruzko Foru Arauko 144. artikuluko 3. atalean xedatutako kasuetan izan ezik.
 - b) Zerga-arautegiaren arabera hala direnak.
4. Gainerako kasuetan zerga-likidazioak behin-behinekoak izango dira.

49. ARTIKULUA

1. Zergei buruzko Foru Arauko 3. atalean ezarritakoari lotuta jakinarazi behar zaizkie likidazioak zergapekoei.
2. Jakinarazpenean ondokoak agertu behar dira:
 - a) Zergapekoaren identifikazioa.
 - b) Zerga-zorraren zenbatekoa eragin duten elementuak.
 - c) Jakinarazpenaren motibazioa, baldin eta ez badator bat zergapekoak adierazitako datuekin edo hark egindako arauen aplikazio edo interpretazioarekin; horrez gainera jakinarazpena eragin duten gertaerak eta oinarriko elementuak adierazi behar dira eta Zuzenbideko oinarriak azaldu.
 - d) Balia daitezkeen inpugnazio-bideak, inpugnazioak aurkeztu behar diren organoa eta aurkezteko epea.
 - e) Zerga-zorra ordaindu behar den lekua, epea eta modua.
 - f) Likidazioa nolakoa den: behin-behinekoa edo behin betikoa.



3. Aldizka ordainagiri bidez kobratzen diren zergetan, behin erregistro, errolda edo matrikula egokian alta emateari dagokion likidazioa jakinarazi ondoren, hurrengo likidazioak taldeka jakinarazi ahal izango dira ediktuen bidez (ediktuetan horren berri eman behar da). Zerga-oinarria aitopenaren emaitzakoa baino handiagoa bada, zergadunari jakinarazi behar zaio eta jakinarazpenean aldea zer eragin duen azaldu behar zaio. Hala ere, aldaketa foru arauak baimendutako errebalorazio orokorraren ondorioz gertatzen bada edo tokiko zerga-arautegiaren arabera zergaren elementuetan aldaketa orokorrak sartzen badira, ez da egongo jakinarazi beharrik

4. Arau bidez ezartzen den kasuetan ez da egin beharko jakinarazpenik, baldin eta Zerga Administrazioak idatziz ohartarazten badio zergapekoari, ez eta autolikidazioak aurkeztu ondoren egindako itzulketen ondoriozko behin-behineko likidazioetan ere, baldin eta itzultako kopurua eskatutako bera bada.

50. ARTIKULUA

1. Euren ezaugarriak direla-eta etenik gabeko zerga egitateak dituzten zergak erroldatu edo matrikulatu ahal izango dira.

2. Altak subjektu pasiboak aitopena egitearen ondorioz, Administrazioaren ikerketaren ondorioz edo Administrazioaren arioz gerta daitezke. Altek ondoreak izango dituzte kasuan kasuko zergari buruzko ordenantzaren xedapenen arabera zerga ordaintzeko betebeharra sortzen den egunetik hasita, iraungipena salbu, eta hurrengo epealdiko erroldan edo matrikulan behin betiko sartuko dira.

3. Bajak subjektu pasiboek eurek formulatu behar dituzte. Behin egiaztapena egin ondoren, erroldatik betirako ezabatuko da, aurkeztu eta ondorengo epealditik aurrera ondoreak izango dituela, ordenantza bakoitzean ezarritako salbuespenak salbu.

4. Zergadunek erroldako altak, bajak edo aldarazpenak eragin ditzaketen aldaketa guztien berri eman behar diote Udal Administrazioari, aldaketa gertatu eta ondorengo hogeita hamar astegunen barruan.

5. Erroldak nahiz matrikulak ekitaldi bakoitzean aurkeztuko zaizkio Alkatetza-Lehendakariari onartzeko, eta onartu eta gero jendaurrean jarriko dira, «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» iragarkia argitaratu eta hurrengo hamabost eguneko epean legezko interesdunek azter ditzaten.

6. Erroldak nahiz matrikulak jendaurreratzeak interesatuetako bakoitzarentzat idatziz jasotako kuoten kitapenaren jakinarazpenak eragingo lituzkeen ondoreak izango ditu. Horrenbestez, egintza horien aurka eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertzea jarri ahal izango da, jendaurreko epealdia bukatu eta biharamunetik zenbatutako hilabeteko epean.

7. Udaletxeko iragarkien taulan eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» derrigorrez agertuko den iragarkian azalduko da non jendaurreratuko diren erroldak nahiz matrikulak. Iragarkia udalerriko ale-kopuru handiena duen egunkarietako batean ere argitaratuko da.

51. ARTIKULUA

1. Zerga Administrazioak berariaz ebatzi behar ditu zergak aplikatzeko prozeduretan agertzen diren arazoak, eta gero berariazko ebazpenak jakinarazi behar ditu.



2. Zergapekoek jakinarazi baizik egin behar ez dituzten eskubideak baliatzearen inguruko prozeduretan Administrazioak ez du edukiko berariaz ebatzi beharrik, ez eta iraungitzen diren prozeduretan, xedea galduta dutenetan eta interesdunak uko edo atzera egiten duenetan ere.

Hala ere, interesdunak Zerga Administrazioari berariaz eskatzen badio aipatu inguruabarretako bat gertatu denez argitzeko, hark erantzun egin beharko du.

3. Ebazpena jakinarazteko gehieneko epea kasuan kasuko prozedurari buruzko arautegian finkatuko da, Zergei buruzko Foru Arauko 102. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

52. ARTIKULUA

Zerga-prozeduretan, Kode Zibilean eta Prozedura Zibileko Legean frogabideez eta frogaren balioespenaz ezarritako arauk aplikatuko dira, zerga-arautegian besterik ezarri ezean. Betiere, Zergei buruzko Foru Arauko 103, 104, 105 eta 106. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

53. ARTIKULUA

1. Zergapekoei egin beharreko jakinarazpenen erregimena administrazio-arau orokorretan ezarri da; nolana ere, kontuan eduki behar dira Zergei buruzko Foru Arauan eta Ordenantza honetan ezarritako ñabardurak.

2. Interesdunak baliabide telematikoak erabiltzearekin ados dagoela adierazi badu eta modu hori lehenetsi badu, jakinarazpenak telematikoki egin ahal izango dira.

3. Interesdunak eskatuta hasten diren prozeduretan, jakinarazpena zergapekoak edo beraren ordezkariak berariaz adierazitako tokian egingo da, edo bataren edo bestearen zerga-egoitzan.

4. Ofizioz hasten diren prozeduretan, jakinarazpena zergapekoaren edo beraren ordezkariaren zerga-egoitzan, lantokian, jarduera ekonomikoa egiten duen tokian edo jasotze-agiria biltzeko aukera ematen duen beste zeinahi tokitan egin ahal izango da.

5. Jakinarazpena zergapekoak edo beraren ordezkariak berariaz adierazitako tokian egiten bada, edo bataren edo bestearen zerga-egoitzan, eta jakinarazpena heltzean interesduna ez badago, bertan dagoen normahik jaso ahal izango du, nor den azaldu ondoren, bai eta jakinarazpen-tokia edo zergapekoaren edo ordezkariaren zerga-egoitza dagoen eraikineko auzoen edo jabeen erkidegoaren enplegatutak ere.

6. Interesdunak edo beraren ordezkariak jakinarazpena jaso nahi ez badu ere, lege-ondoretarako egintzat joko da.

54. ARTIKULUA

1. Zerga-egoitzan edo interesdunak adierazitako tokian jakinarazteko bi ahalegin, gutxienez, egin ondoren zergapekoari edo beraren ordezkariari ezin bazaio helarazi jakinarazpena Zerga Administrazioari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, espedientean jakinarazpen-ahaleginen inguruabarrak adieraziko dira. Jasotzailea aipatu egoitzan edo tokian ezezaguna bada, ahalegin bat nahikoa izango da.



Hala gertatzen denean, interesdunari edo beraren ordezkariari zitazioa egingo zaio bertaratuta jakinarazteko; horretarako iragarkiak argitaratuko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Ezagutzen den azken egoitza Erandiotik kanpo egonez gero, iragarkia ezagutzen den azken zerga-egoitzari dagokion udaletxean ere jarri ahal izango da. Ezagutzen den azken egoitza atzerrian badago, iragarkia dena delako herrialdearen kontsulatuan edo enbaxadaren kontsulatu-sailean jarri ahal izango da.

Zerga Administrazioak baliabide informatikoen, elektronikoen eta telematikoen bidez jar ditzake iragarki hauek, zerga-arautegian ezartzen denari lotuta.

2. Iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, egiteko dauden jakinarazpenen zerrenda agertuko da eta ondokoak adieraziko dira: zergapekoa edo beraren ordezkaria; jakinarazpenak eragin dituen prozedura; izapidetzeko eskumena duen organoa; jasotzailea nora eta noiz joan behar den jakinarazpena jasotzera. Interesduna iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik egutegiko hamabost egun pasatu baino lehen bertaratu beharko da. Aldi horretan bertaratzeko ez bada, jakinarazpena epearen mugaegunaren biharamunean egintzat hartuko da lege-ondore guztietarako.

3. Zergapekoa edo beraren ordezkaria jakinarazpena jasotzera bertaratu ez eta ondorioz prozedura baten hasiera edo beraren izapideetako bat jakinarazitzat jotzen bada, prozeduraren hurrengo jarduketak eta eginbideak ere jakinarazitzat joko dira eta bere hartan mantenduko da prozeduran zehar noiznahi bertaratzeko eskubidea. Hala ere, prozeduran ematen diren likidazioak eta, egonez gero, enbargatutako ondasunak besterentzeko erabakiak Zergei buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera jakinarazi beharko dira.

55. ARTIKULUA

Akastun jakinarazpenek ondorioak izango dituzte subjektu pasiboari beren beregi jakinarazten zaion egunetik aurrera, berriazko errekurtsua jartzen duenetik edo zerga zorraren sarrera egiten duenetik.

II. KAPITULUA. ZERGAK KUDEATZEKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK

56. ARTIKULUA

1. Zergen kudeaketa esaten zaio ikuskapen eta bilketa eginkizunetan sartzen ez diren zergak aplikatzeko administrazio-jarduketan multzoari.

2. Zerga-arautegian ezarritakoaren arabera, zergen kudeaketa honela hasiko da:

a) Interesdunak eskatuta, autolikidazioaren edo aitopenen bidez, edo zergapekoak eskaera aurkeztuta, Zergei buruzko Foru Arauko 96. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Zerga Administrazioak ofizioz.

57. ARTIKULUA

1. Zerga-aitorpenzat hartuko dira zergak aplikatzean eragina izan dezakeen egitateren bat aintzatesteko edo agertzeko Zerga Administrazioari aurkeztu zaizkion agiri guztiak.

Aitorpena aurkezteak ez dakar berekin zergapekoak zerga-betebeharra bidezkoa dela onartu edo aintzatetsi beharra.

2. Arau bidez ezarri ahal izango da zein kasutan onar daitekeen aitorpena ahoz edo ezagutza adierazteko bestelako egintza baten bidez egitea.

3. Oro har, aitorpena aurkeztuta baliarazten edo eskatzen diren edo uko egiten zaien aukerak ezin zuzendu izango dira geroago, aitorpen-aldian izan ezean.

Hala ere, zerga-arautegian aukera horiek zuzentzeko beste une edo aldi bat ezarri ahal izango da, bai eta horretarako baldintzak ere.

4. Zerga Administrazioak zergapekoek aurkeztutako aitorpenak berrikusi eta egiaztatu ahal izango ditu eta, behar denean, likidazioak egingo ditu.

58. ARTIKULUA

1. Autolikidazioak aitorpenak dira; beraien bidez zergapekoek, Administrazioari zerga likidatzeko behar diren datuak eta bestelako datu informatibo batzuk emateaz gainera, euren kabuz egiten dituzte zerga-zorra zehazteko eta zenbatekoa sartzeko edo itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehazteko behar diren kalifikazio- eragiketa eta kalkulu guztiak.

Halaber, autolikidazio izango dira berariatzko arautegian ezarritako baldintzak betetzen dituzten zergapekoek, Zerga Administrazioak lagunduta, aurreko idatz-zatian aipatutako jarduketak egiteko aurkezten dituzten aitorpenak.

2. Zergapeko batek uste badu autolikidazio batek kalte egin diela nolabait bere bidezko interesei, zuzentzeko eskatu ahal izango du arau bidez ezarritako prozedurari lotuta.

Autolikidazio baten zuzenketaren ondorioz zergapekoari zerga-arautegiaren araberrako itzulketa egin behar bazaio eta likidaziorik egin gabe sei hilabete pasatu badira eta horren kausa Zerga Administrazioari egotzi ahal bazaio, honek itzuli beharreko kopuruaren berandutza-interesak (Zergei buruzko Foru Arauko 26. artikuluan aipatuak) ordaindu beharko ditu; zergapekoak ez du edukiko interesok ordaintzeko eskatu beharrik.

Ondore horietarako, sei hilabeteko epea autolikidazioa aurkezteko epea amaitzen denetik hasiko da zenbatzen edo, ordurako amaituta badago, autolikidazioa zuzentzeko eskaera aurkezten denetik.

Autolikidazio baten zuzenketaren ondorioz bidegabe sartutako kopuru bat itzuli behar bada, Zerga Administrazioak haren berandutza-interesak ordainduko ditu, Zergei buruzko Foru Arauko 31. artikuluan adierazitakoari lotuta.

59. ARTIKULUA

1. Zergapekoek autolikidazio osagarriak, edo aitorpen osagarriak edo ordezkioak, aurkeztu ahal izango dituzte berariatz ezarritako epean, edo epea mugaeguneratutakoan, baldin eta Administrazioak zerga-zorra zehazteko duen ahala preskribituta edo iraungita ez badago. Ahal hori preskribituta edo iraungita aurkezten direnak epez kanpokoak izango dira.



2. Autolikidazio osagarrien helburua aurretik aurkeztutako bat osatzea edo aldatzea da; autolikidazio hauek sartu beharreko diru kopurua aurreko autolikidaziokoa baino handiagoa edo itzuli edo konpentsatu beharrekoa baino txikiagoa denean aurkeztu ahal izango dira. Gainerako kasuetan, foru arau honetako 118. artikuluko 2. atalean xedatutakoa aplikatuko da.

60. ARTIKULUA

Hona hemen, besteak beste, zergak kudeatzeko prozedurak:

- a) Autolikidazioaren bidez hasten den prozedura.
- b) Aitorpenaren bidez hasten den prozedura.
- c) Ofizioz hasten diren itzulketa-prozedurak eta zerga-zorren zenbatekoa zehazteko prozedurak.
- d) Balioak egiaztatze prozedura.
- e) Egiaztapen mugatuaren prozedura.

61. ARTIKULUA

1. Zergari buruzko arautegian ezarriz gero, beraren kudeaketa zergapekoak autolikidazioa aurkeztuta hasiko da; bertan zergapekoak zerga-zorren zenbatekoa edo itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehaztu behar du.

2. Autolikidazioaren emaitza diru kopuru bat itzuli beharra bada, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazio baten bidez itzuli beharko du.

Zergei buruzko Foru Arauko 30. artikuluan itzulketa egiteko aipatutako epea autolikidazioa egiteko epea amaitzen denetik hasiko da zenbatzen, edo bestela, epez kanpo aurkeztu bada, aurkeztu den egunetik aurrera. Azkenean itzultzen den kopuruaren berandutza-interesak ordaindu beharko dira (egiaztapen mugatuaren prozedura edo ikuskapen prozedura hasten bada ere), aipatu artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Autolikidazioaren bidez hasten den prozedura modu hauetako batean amaituko da (bidezkoa den kasuetan Zergei buruzko Foru Arauko 123. artikuluan aipatutako berrikuspena egin ondoren):

- a) Zerga Administrazioaren behin-behineko likidazioaren bidez; nolana ere, Zergei buruzko Foru arauko 124. artikuluko 5. atalean xedatutakoa bete beharko da.
- b) Ikuskapen-prozeduraren bidez (egiaztapen murriztuaren prozedura ez beste bat).

62. ARTIKULUA

1. Zergari buruzko arautegian ezarriz gero, beraren kudeaketa zergapekoak autolikidazioa aurkeztuta hasiko da; bertan zergapekoak zerga-zorren zenbatekoa edo itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehaztu behar du.

2. Zerga Administrazioak aurreko atalean aipatutako likidazioa jakinarazi beharko du, Zergei buruzko Foru Arauko 123. eta 124. artikuluetan xedatutako berrikuspen, kalifikazio eta zenbatze jarduketak egin ondoren (behar denean).

3. Aitorpenaren bidez hasten den prozedura modu hauetako batean amaituko da (behar den kasuetan Zergei buruzko Foru arauko 123. artikuluan aipatutako berrikuspena egin ondoren):



a) Zerga Administrazioaren behin-behineko likidazioaren bidez; nolana ere, Zergei buruzko Foru arauko 124. artikuluko 5. atalean xedatutakoa bete beharko da.

b) Ikuskapen-prozeduraren bidez (egiaztapen murriztuaren prozedura ez beste bat).

63. ARTIKULUA

1. Autolikidazioen eta aitorpenen berrikuspenak eta behin-behineko likidazioak egiteko, Zergei buruzko Foru Arauko 123 eta 124. artikuluetan ezarritakoa bete behar da..

2. Ofizios hasten diren itzulketa-prozedurak, zerga-zorraren zenbatekoa zehazteko prozedurak, balioak egiaztatze prozedura eta egiaztapen mugatuaren prozedura Zergei buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera arautuko dira (125 - 133 artikulua).

III. TITULUA. ZERGA IKUSKAPENA

64. ARTIKULUA

Udal honek Ikuskatzailatza gaitan BLHko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean bai eta hura garatzen duten arautegietan eta osagarri dituen gainerako xedapenetan xedatutakoa izango dute aginduzko.

IV. TITULUA. ZERGA BILKETA

I. KAPITULUA. ORDAINKETA EGITEKO EPEAK. GERORATZEAK

65. ARTIKULUA

Zerga-zorra norberaren borondatez ordaintzeko epea ondorengo egun hauetan hasiko da zenbatzen:

a) Subjektu pasiboari likidazioa zuzenean jakinarazten zaion egunean, banaka egiten denean, edo likidazioa «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunean, zergadunari berari zuzenean jakinarazterik egon ez bada.

b) Dagokion Ediktuan adierazten direnean, taldeka jakinarazten diren aldizkako zergak direnean. Ediktua «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da eta Udaletxeko iragarkien taulan jendaurreratuko

c) Zorra sortu den egunean, autolikidazioa denean.

66. ARTIKULUA

1. Borondatezko epean ezein zerga-zorren nahiz eskubide publikoko gainerakoen sarrera ez egiteak, aldeztu aurretik ordainketa geroratzea edo zatikatzea eskatu gabe, zerga-zorra ordaindu behar duenari zor guztiak —hala geroratuta nola zatikatuta dauzkanak— berehala ordaindu beharra ekarriko dio, BLHZBari jarraituz

bidezko liratekeen bestelako ondoreak eragotzi gabe, bai eta borondatezko epean onartuta izan zitezkeen geroratze nahiz zatikatze akordioen ondore guztiak ere.

67. ARTIKULUA

1. Udal honek kudeatzen dituen era guztietako zorren gerorapena eta zatikapena alkate-udalburuak nahiz hark eskuordetutako organoak emango ditu, Udal Diruzaintzak proposamena egin ondoren.
2. 300,00 eurotik beherako zorretarako ez da ez geroratze ez zatikatzerik emango.
3. Aipatu geroratze nahiz zatikapenak gehienez hamabi hilerako emango dira, salbuespen gisa, Gobernu Batzordeak epea luzatzeko baimena eman ez badu behintzat.

68. ARTIKULUA

1. Gerorapen eskabidea tramitatzekotan, eskatutako zorraz gainera, zorpetuak epealdi exekutiboan dauden eta geroratuak ez ezik etenak ere izan ez diren zor guztiak sartuta baldin badauzka soilik tramitatuko dira, eta zorpetuari bahitutako ondasunak besterentzeko akordioa jakinarazi aurretik aurkeztu bada eskabidea.
2. Geroratze eskabidean honako datuok agertu beharko dute, nahitaez:
 - a) Eskatzailearen eta, behar den kasuetan, ordezkariaren izen-abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia edo Identifikazio Fiskaleko zenbakia eta eskatzailearen helbide fiskala.
 - b) Geroratzeko eskatzen den zerga zorra, zenbatekoa, espediente zenbakia, kontzeptua eta zein ordainketa epetan (borondatezkoa nahiz exekutiboa) dagoen adieraziz.
 - c) Geroratzea eskatzeko arrazoiak zein diren.
 - d) Eskatutako geroratzearen epeak eta gainerako baldintzak.
 - e) Emango den bermea bat dator hurrengo artikuluan adieraziko denarekin, eta beti ere, ordenantza honetan bermeak ez exijitzearen eta emateari buruzko 87. artikuluan ageri denari eragotzi gabe. Udal Ogasunak eskatzaileei berme gisa eskaintzen dituzten ondasunak balora ditzatela eska diezaieke, balorazioa enpresa edo profesional espezializatu eta lokabeek eginez.
 - f) Geroratutako nahiz zatikatutako ordainketa helbideratua izan den finantza-erakundearen kontu korrontea (20 digitu).
 - g) Lekua, data eta sinadura.

69. ARTIKULUA

1. Eskatzaileak abal solidarioa eskainiko du bermetzat, kreditu-erakunderen batek ala elkarrekiko bermeko baltzuren batek emana edota kauzio-aseguru baten bitartez, eta harekin batera, gerorapena emanez gero beharko den abala erakundeak jarriko diola dioen berariazko konpromiso ezeztazina.
2. Abala nahiz egiaztagiria ezin bada eskuratu, edota horrekin enpresaren bideragarritasuna serioski kolokan jartzen bada beste honelako bermeren bat onartu ahal izango da:



- Ondasun higiezinaren alde bakarreko hipoteka.
- Ondasun higigarrien alde bakarreko hipoteka.
- Bahitura, eskualdatzeduna nahiz eskualdatzerik gabea.
- Behar bestekotzat jotako beste edozein.

3. Abalaz bestelako bermeren bat eskainiz gero, honako dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

a) Berme gisa eskainitako ondasunen balorazioa, espezializatutako enpresa nahiz profesional independenteek egina.

b) Ondasun higiezinak baldin badira, jabetza eskrituraren fotokopia eta, horri erantsirik, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren azken ordainagiria edota katastroko zenbaki finkoa agertzen den zedula. Horrezaz gainera, Jabetza Erregistroko kargen ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.

4. Emate akordioaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatutako hogeita hamar eguneko epean formalizatu beharko da bermea eta haren eraginkortasuna bermea aurkeztearen mende geratuko da. Epea laurogeita hamar astegunez luza dezake bermeak onartzeko organo eskudunak, epe horretan gauzatzea eragozten duten zioak badirena justifikatzen denean, aldeztu aurretik interesatuak eskabide arrazoitua eginez.

5. Bermea formalizatu gabe igaro badira aipatu epeak, emate akordioa indarririk gabe geratuko da, eta BLHABAko 60. artikuluan aurreikusitako ondorioak gertatuko dira.

6. Bermeak zorra osorik ordaindu dela egiaztatu denean geratuko dira libre. Bermatzen duen zorra ordaindutakoan geratuko da libre berme partzial bakoitza.

7. Bermeen nahikotasun ekonomikoa eta juridikoa horretarako eskuduntza duten organoek baloratuko dute, zeintzuek administrazioko beste zerbitzu batzuei txostena eska baitieziaiekete edota horretarako propio kanpoko zerbitzuak kontratu.

70. ARTIKULUA

1. Ez da bermerik eskatuko baldin eta geroratzeko eskatu den zorraren muntak ez badu 3000 euroko kopurua gainditzen.

2. Berme dispentsari dagokionez, BLHZBAren 52.4 artikulua dioenari egingo zaio men.

71. ARTIKULUA

1. Geroratzeko eskabideak jasotzeko eskumena duen organoak aztertuko du jasotako dokumentazioa. Akatsak interesatuari jakinaraziko zaizkio bai eta ohartaraziko, hamar eguneko epearen barruan zuzentzen ez baditu, espedientea artxibatu eta eskabidea ez-aurkeztukotzat joko dela.

2. Ebazpena eman aurretik edo espedienteak eskumena duen organoari igorri aurretik, Ekonomia, Ogasun eta Ondare Arloko alkateordeak zorraren inguruabarrei eta eskatzailearen egoera ekonomiko eta finantzarioari buruzko aurretiko txostena eska dezake.

72. ARTIKULUA

Bermeak printzipalaren zenbatekoaz gainera, berandutza-interes guztiak baita eman geroratzekoei dagozkienak ere, gehi borondatezko epean sortu kontzeptu guztien baturaren 100eko 25 estali beharko du.

Zatikapenak onartu badira, epeetako bakoitzerako berme partzial bana aurkez daiteke. Horrelakoetan, berme bakoitzak zatiki bakoitzari dagozkion zenbatekoak estaliko ditu, aurreko atalarekin bat etorritz.

Bermea zenbatze soilaren ondoretarako, geroratzea onartutako egunean indarrean dagoen tasa izango da berandutza korrituak kalkulatzeko ezarriko dena.

73. ARTIKULUA

1. Geroratze eskabideak hilabeteko epean ebatziko dira, eta hura igarotakoan, eskatzailea emate nahiz ukatze ebazpenaren jakinarazpena jasotzera agertuko da, aldez aurretik jakinarazpena egin ezean. Egun horren hurrengo hamar astegunetan agertzen ez bada, jakinarazitakotzat joa izango da.

Interesatuari dokumentazio nahiz informazio osagarria aurkezteko eskatu bazaio, aipatu izapideak iraun duen epealdiaren beste luzatuko zaio ebazpen epea.

2. Artikulu honen 1 atalean adierazitako epean ez bada geroratze eskabidea ebatzi, emate nahi ukatzearen jakinarazpena eskatzailearen helbide fiskalean edota hark jakinarazpenetarako adierazitakoan egingo da.

II. KAPITULUA

ORDAINTZEKO BIDEAK. PREMIAMENDU-PROZEDURA

74. ARTIKULUA

1. Finantza erakundeko helbideratze kontua Udal Zerga Bilketa Bulegora igorritako eskabidearen bidez aldaraz daiteke, epea iraungi baino hamabost egun lehenago.

2. Interesak kalkulatzeari eta geroratutako nahiz zatitutako kopuruak ez ordaintzeari dagokionez, BLHZBaren 59. eta 60. artikuluek horri buruz xedatutakoari jarraituko zaio.

75. ARTIKULUA

1. Ordainarazpen-aldiaren hasierak sartu gabeko zorraren zenbatekoaren 100eko 20ko errekarquaren sortzapena ekarriko du, bai eta ordainarazpen-aldiaren hasieratik sortu eta zorrari dagozkion berandutza-interesena ere.

2. Hala ere, errekarqua 100eko 5ekoa izango da sartu gabeko zerga zorra BLHZBaren 104. artikuluan aurreikusitako epearen barruan ordaintzen bada. Kasu horretan, ordainarazpen-aldia hasi geroztik sortutako berandutza-interesak ere exijituko dira.

III. KAPITULUA

PRESKIPZIOA, ZORRAK DEUSEZTATZEA ETA KREDITU KOBRAEZINAK

76. ARTIKULUA - *Preskripzioa eta zorrak deuseztatzea*

1. Zerga-zorrak ordain daitezela exijitzeko epea borondatezko ordainketa epea burutu den egunetik zenbatutako lau urteren buruan preskribituko da.

2. Zerga-zorrak xedatzeko epea borondatezko ordainketa epea burutu den egunetik zenbatutako hiru urteren buruan preskribituko da.

3. Zerga-zor ez direnen preskripzio epea haiek kudeatzeko arautegi bereziaren arabera xedatuko da. Zuzenbide publikoko nahiz zerga zuzenbideko araubideetan aurreikuspen berariazkorik ez balego, Aurrekontuen Legearen 40. artikuluan ezarritako bost urteko preskripzio epea aplikatuko litzateke.

4. Preskripzio epea honako kasuetan etengo da:

a) Zerga-zorra ordaindu behar duenak zorra azkentzeko ekintzak egin baditu, edota galdapen nahiz errekursoak jarri baditu.

b) Diru-bilketa organoek zorra gauzatzeko nahiz ziurtatzeko bideratutako ezein jarduketa egin badute. Jarduketa horiek arauz exijitutako moduan dokumentatu beharko dira, bereziki agerrarazi beharko delarik Ordenantza honetan araututako moduan burututako jakinarazpenek preskripzioa eteteko indarra dutela.

5. Etenaldia gertatu ondoren, preskripzio-epearen konputua berriro hasiko da, zerga ordaindu behar duenaren edo Administrazioaren azken jarduketa egin den egunetik aurrera.

Preskripzio epea etendakoan, etenaldiak zerga ordaindu behar duen guztiei eragingo die.

6. Preskripzioa ofizioz aplikatuko da eta Diruzainak adieraziko du, bai eta urtean zehar preskribitu diren zor guztiei dagokien urteko espediente kolektiboa ere bideratuko. Espedientea Kontuhartzaileak fiskalizatu ondoren, organo eskudunari igorriko zaio hark onar dezan.

7. Deuseztatu egingo dira eta kontuan baja emango, honako beharkizunok batera betetzen dituzten zorrak:

a) Udal Ogasunaren zuzenbide publikoko baliaabideak izatea, 2001-12-31 aurretik kitatuak, eta ordainarazpen-espediente batean zergaduru beraren beste zor batzuekin metaturik ez egotea.

b) Ordainarazpen-aldian dauden zorrak izatea.

c) Borondatezko epean zordunari jakinarazi zaion behin-behineko kitapenaren zenbatekoa 9 euro baino gehiago ez izatea, kopuru hori ez delako ordainarazpenaren eta diru-bilketaren kostua estaltzeko nahikotzat jo.

77. ARTIKULUA - *Kaudimengabezia*



1. Kobratu ezinezko kredituak dira, diru-biltze kudeaketaren prozeduran eraginkor egin ezin direnak, zerga-zorra ordaindu behar dutenak kobraezinak direlako edota aurreko artikuluan aurreikusitako jarduketek huts egin dutelako.
2. Zerga-zorra ordaindu behar dutenak eta erantzuleak kobraezinak direla aitortu ondoren, zorrak behin behingoz azkendutzat joko dira, preskripzio epearen barruan birgaitzen ez diren bitartean. Epe horretan ez balitz birgaitu, zorra behin betiko azkendua geratuko da.
3. Diru-bilketa Buruak zordunak kaudimena duela jakingo balu, Diruzainari kreditua birgaitzeko proposatuko dio. Behin onartu eta gero, informatikaren bitartez erregistratuko da.
4. Zorduna kobraezina dela adierazitakoan, geroagoko epemuga duten haren aurkako kredituei baja emango zaie, ez bada beste zordun nahiz erantzulerik.
5. Kredituak kobratu ezin direnean, Diru-bilketako Atalburuak behar bezala dokumentatuko ditu espedienteak, eta haiekin batera Diruzainak adostutako proposamena egingo du Kontu-hartzaitzak fiskalizatzeko eta organo eskudunak onartzeko. Diru-bilketa kudeatzeko ekonomia eta eraginkortasun irizpideak oinarri harturik, ondoren zehazten da kredituak kobraezintzat jotzeko espedientei zenbatekoen arabera erantsi beharko zaizkien dokumentuak.

78. ARTIKULUA - *Proposamenak egiterakoan aplikatu beharreko irizpideak*

1. Prozeduraren legezotasun printzipioa eta eraginkortasun administratiboa batera joan daitezen, kredituak kobraezinak direla adierazi aurretik, egiaztatu beharreko beharkizun eta baldintza batzuk ezarri dira:
2. Frogagiriak desberdinak izango dira, zorraren zenbatekoak eta ezaugarriak zein diren, honako suposamenduok desberdinduko direla:
 - 2.1. 60 euro baino gutxiagoko zenbateko metatua duten zorreatik espedienteak.

Ordainarazpen bidean metatutako zorrak dituzten zergaduruen espedienteetan, printzipalen zenbatekoen batura 60 euro baino gutxiago denean, eta ordainarazpen bidean kobratzeko kudeaketaren bat egin eta emaitza negatiboa izan denean, ofizioz balio gabetu eta datatuko dira, beste inolako tramiterik gabe, behin Zerga Bilketako Atalburuaren txostenaren bitartez frogaturik, behar beste egiaztapen egin eta gero.
 - 2.2. 60,00 eta 600,00 euro bitarteko zenbatekoak metatuak dituzten zorreatik espedienteak. Kreditu kobraezinak direla adierazteko proposamena egingo da, honako beharkizunok kontuan hartuta:
 - 2.2.1. Ordainarazpen-espedienteetan jakinarazpenak agertu beharko du balioetan agertzen diren helbide guztietan, udal datuen oinarrian agertzen den helbidean eta biztanle erroldan agertzen den helbidean.
 - 2.2.2. Aurreko atalean adierazitako helbideetan, dela zorduna ezezaguna delako dela bertan ez dagoelako, bi jakinarazte saio egin ondoren, «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» iragarki bidez emango dira argitara.
 - 2.2.3. Espedienteetan, zorduna ondasun higiezin gainerako zergaren erroldan edota jarduera ekonomikoen gainerako zergan subjektu pasibo lege agertzen ez dela egiaztatu beharko da.

2.2.4. Zordunaren IFK izanez gero, fondoan bahitura frogatu beharko da banketxe desberdinetan, bai eta emaitza negatiboz egin den soldata, lansari eta pentsioen bahitura ere.

2.3. 600,00 euro baino gehiagoko zerga-zorrak metatzeagatiko espedienteak, pertsona fisikoen izenean daudenak. Kreditu kobraezinak direla adierazteko proposamena egingo da, honako beharkizunok kontuan hartuta:

2.3.1. Ordainarazpen-espedientean jakinarazpenak agertu beharko du balioetan agertzen diren helbide guztietan, udal datuen oinarrian agertzen den helbidean eta biztanle erroldan agertzen den helbidean.

2.3.2. Aurreko atalean adierazitako helbideetan, dela zorduna ezezaguna delako dela bertan ez dagoelako, bi jakinarazte saio egin ondoren, «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» iragarki bidez emango dira argitara.

2.3.3. Espedientean, zorduna Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren erroldan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan subjektu pasibo legeaz agertzen ez dela egiaztatu beharko da.

2.3.4. Zordunaren IFK izanez gero, fondoan bahitura frogatu beharko da banketxe desberdinetan, bai eta emaitza negatiboz egin den soldata, lansari eta pentsioen bahitura ere.

2.3.5. Jabetza Erregistroen Indize Nagusiko Zerbitzuan eta bestelako erregistro publikoetan zordunaren izenean inskribatutako ondasunik ez dela frogatu beharko da.

2.4. 600,00 euro baino gehiagoko zerga-zorrak metatzeagatiko espedienteak, erakunde juridikoen izenean daudenak. Kreditu kobraezinak direla adierazteko proposamena egingo da, honako beharkizunok kontuan hartuta:

2.4.1. Ordainarazpen-espedientean jakinarazpenak agertu beharko du balioetan agertzen diren helbide guztietan, udal datuen oinarrian agertzen den helbidean.

2.4.2. Aurreko atalean adierazitako helbideetan emaitza negatiboz egindako jakinarazpenak «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu beharko dira, iragarki bitartez.

2.4.3. Espedientean, zorduna Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren erroldan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan subjektu pasibo legeaz agertzen ez dela egiaztatu beharko da.

2.4.4. Fondoan enbargoa banku erakunde desberdinetan egiaztatu beharko da.

2.4.5. Jabetza Erregistroen Indize Nagusiko Zerbitzuan eta bestelako erregistro publikoetan erakunde zordunaren izenean inskribatutako ondasunik ez dela frogatu beharko da.

2.4.6. Merkataritza Erregistroaren bitartez eskuratutako informazioa baliatuz burututako jarduketak adierazi egin beharko dira.

3. Aurreko ataletan aipatutako kopuruak zehazteko. zergaduruak ordaintzeke dauzkan zor guztiak zenbatuko dira, eta beti ere, premiamenduko probidentzia agindu baldin bada.

V. TITULUA. ZEHATZEKO AHALA**79. ARTIKULUA**

Zergarekiko arau-hausteeak eta zehapenek ZFAOko 183. artikulutik 219ra bitartekoetan xedatutakoa izango dute aginduzko.

VI. TITULUA. BERRIKUSPENAK ADMINISTRAZIO BIDEAN**80. ARTIKULUA**

Berrikuspenak administrazio bidean Zergei buruzko Foru Arauan eta Toki Ogasunen Foru Arauan ez ezik hura garatzen duen araudian ere xedatutakoa izango du aginduzko.

81. ARTIKULUA

Errekurritu den egintzaren betearazpenaren etendura.

1. Berraztertzean edo bide ekonomiko-administratiboan inpugnatu den egintzaren betearazpena automatikoki etengo da interesdunak hala eskatzen duenean, baldin eta egintza horren zenbatekoa, etendurak sorrarazten dituen berandutza-interesak eta etenaldia eskatzeko unean egon litezkeen errekareruak bermatzen badira, araubidez ezarritako baldintzetan.

Hala ere, berraztertzearen errekarerua edo administrazioarekiko diru-erreklamazioa garaiz eta behar den eran jartzeak inpugnatutako egintzaren betearazpenaren etendura ekarriko du, inolako bermerik jarri gabe, gainera. Horretarako, beharrezkoa izango da zerga-zorra borondatez ordaintzeko aldiaren egotea edo premiamendu probidentziaren aurkako errekarerua bat aurkeztuta egotea. Bi kasuetan, betiere, borondatezko aldiaren azkenean, zorraren zenbatekoa 3.000 euroren parekoa edo txikiagoa izan beharko da.

Inpugnazioak zerga-zehapenen batean eragina badu, beraren betearazpena automatikoki etenda geratuko da, eta ZFAOko 219. artikuluko 3. atalean xedatutakoaren arabera, ez da zertan bermerik jarri behar izango.

Kudeaketa partekatua duen zerga bati buruzko zentsu-egintza inpugnatzen denean, ez da likidazioa kobratzeko prozeduran inolako etenik gertatuko. Horrek ez du galaraziko sartutako kopuruak itzultzea, bidezkoa denean, zentsu arloan ematen den ebazpenak ordaindutako likidazioaren emaitzan eragina badu.

2. Aurreko atalean aipatzen den etendura automatikoa lortzeko beharrezko berme bakarrak hauek izango dira:

a) Diruaren edo balore publikoen gordailua.

b) Kreditu-erakunde edo elkarrekiko bermerako sozietate batek emandako abala nahiz fidantza solidarioa edo kauzio-asegurua ziurtagiria.

3. Interesdunak ezin duenean etendura lortzeko beharrezkoa den besteko bermerik eman, organo eskudunak ontzat ematen dituen beste berme hauen prestazioa onartu ahal izango da. Organo honek, bestalde, etenduraren inguruko ebazpena aldatu ahal izango du: berori arrazoitu zuten baldintzak mantentzen ez direla uste duenean, emandako bermeek balioa edo eraginkortasuna galtzen dutenean, edo etenaldia ebazteko unean ezezagunak ziren berme moduan eman daitezkeen beste ondasun eta eskubide batzuk badaudela dakienean.

4. Aurreko ataletan ezarritakoa kontuan hartuta, inpugnatutako egintzaren betearazpenaren etendura erabaki ahal izango da:

a) Bermeen erabateko edo zatikako dispentsaren bidez, betearazpen horrek konpontzeko zailak edo ezinezkoak diren kalteak ekarri ditzakeenean araubidez zehaztutako baldintzetan; hala ere, organo eskudunak aurreko ataletan aurreikusitako etendurari buruzko ebazpenak aldatu ahal izango ditu.

b) Bermerik eman behar izan gabe, inpugnatutako egintzan oker aritmetiko, material edo egitatezkoren bat egon daitekeela ikusten denean.

c) Zerga-zorrik edo zenbateko likidorik xedetzat ez duen egintza izan eta interesdunak haren etendura eskatzen duenean, betearazpenak kalte larriak edo konponezinak ekar ditzakeela frogatuz gero.

5. Errekurtsoak zerga-zor osoari eragiten ez badio, errekurritu den zatiaren betearazpena bakarrik etengo da; kasu horretan, zergadunak gainerako zenbatekoa ordaindu behar izango du.

6. Berraztertze errekurtsoan gertatzen bada etendura, bide ekonomiko-administratiboan mantendu ahal izango da, arau bidez zehaztutako baldintzak betez.

7. Administrazio-bidean emandako etenaldia mantenduko da, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epearen barruan zergadunak Zerga Administrazioari jakinarazten dionean errekurtsu hori sustatu eta etetea eskatu duela. Etendura horrek jarraitu egingo du, administrazio-bidean ezarri den bermeak indarrean jarraitzen badu eta bere eraginkortasuna mantentzen badu, harik eta organo judizialak eskatutako etenduraren gainean dagokion erabakia hartu arte.

Zehapenen kasuan, etendura aurreko paragrafoan adierazitako moduan mantenduko da inolako bermerik jarri behar izan gabe, harik eta erabaki judiziala hartu arte.

8. Berrikuspenerako aparteko errekurtsuaren bidez inpugnatutako egintzaren edo ebazpenaren betearazpena ezin izango da inola ere eten.

9. Errekurtsoaren edo erreklamazioaren gainean emandako ebazpenaren ondorioz inpugnatu den egintzaren zenbatekoa osorik edo zati batean ordaindu behar denean, etenaldi osoari dagozkion berandutza-interesak likidatuko dira, ZFAOko 26. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta aipatu Foru Arauaren 219. artikuluko 3. atalean aurreikusten dena kontuan hartuta.

82. ARTIKULUA

Epeen barruan ebazpenik izan ez duten berraztertze errekurtsoa gaitzetsia izan dela ulertuko da.

Presuntziorik ukapenak ez du errekurtsu ebazteko obligaziotik salbuesten.

VII. TITULUA. ORGANOEN ETA KARGUEN BALIOKIDETASUNA

Ikuskatzailtza gaitetan, Udal honek Zergak Kudeatzeko, Biltzeko eta Ikuskatzeko Oinarriak arautzen dituen Ordenantza honetan araututakoa izango du aginduko, bai eta Foru Arauak ere, haietan ez datorren guztia xedatzeko. Horrenbestez, organoen eta karguen ondorengo baliokidetasuna onartuko da.



Foru Arauan egindako aipamenak	Honela ulertuko dira
Foru Ogasuna	Tokiko Ogasuna
Ogasun eta Finantza Saila eta Ogasun eta Finantza Saileko Foru Diputatua	Alkatea
Ogasun eta Finantza Saileko Foru Diputatuaren menpeko organo eta karguak	Ogasun, Finantza eta Ondare Arloko alkateordea
Diruzaina	Diruzaina
Foru erakunde autonomoak	Udal erakunde autonomoak
Foru Aldundia	Erandioko Udala

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan aurreikusi ez den guztian, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua, aipatu Foru Araua garatzen duten arautegiak eta haiekin bat datozen aplikatzekoak diratekeen xedapenak izango dira aginduzko.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Bilketari dagokionez, prezio publikoetarako ere aplikagarri izango dira tasa eta zergen banakako likidazioak borondatezko aldian ordaintzeko Ordenantza honetan ezarritako epeak.

AZKEN XEDAPENA

Honako ordenantza hau 2005eko urriaren 25ean izandako osoko bilkuran onartu du Udalbatza Osoak, 2006ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak eta indarrean iraungo du harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.